



GASTEIZKO  
UDALAREN  
IV. GAZTE  
PLANA

1

Emantzipazioa

## **EREMUA**

Erronka hau planteatzen du eremu honek:

**1. Pertsona gazteen emantzipaziorako baldintza egokiak sortzen dituen hiria izatea (enplegua, etxebizitza eta informazioa), genero-dimentsioak kontuan hartuta, betiere.**

Erronka horren barnean, pertsona gazte baten emantzipazio-prozesu orok beharrezkoak dituen oinarritzko bi alderdi biltzen dira: enplegua eta etxebizitza.

Gauza jakina da udalak arlo horretan dituen eskumenak eta jarduteko aukerak mugatuak direla, baina horrek ez du oztopo izan behar pertsona gazteek kalitatezko enplegua eta etxebizitza (alokairuan edo jabetzan) eskuratzeko dituzten baldintzak hobetzen saiatzeko.

Esku-hartze horiek zuzentzen zaizkien gazteen taldea oso heterogeneoa da, eta, horrez gain, etxebizitzarekin lotutako ekintzen kasuan, pertsona gaztearen kontzeptua 35 urtera arte luzatzen da. Egia da esku-hartze batzuek ez dutela zentzurik 14 eta 15 urteko gazteen kasuan, gazteegiak direlako, baina bai 16 urtetik aurrera, horixe baita enplegua eskuratzeko legezko adina.

Pertsona gazteen taldearen barnean, desabantaila-egoera jasaten duten edo jasateko arriskua duten gazteak izan behar dira kontuan bereziki. Egoera horrek zaugarriagoak egiten ditu lan-merkatuaren edo etxebizitzaren merkatuaren aldaketen aurrean, eta, askotan, zaildu egiten du pertsona horiek lana eta etxebizitza eskuratzeko duten aukera, bai eta prestakuntza-baliabideak eskuratzeko aukera ere zenbaitetan.

Horregatik, egoera hori duten gazteen kasuan, esku-hartze bereziak egin behar dira, haien aldeko diskriminazio positiboa egin behar da nolabait, hala, gure gizartearen iraunkortasuna sustatzeko eta bultzatzeko.

Enplegua eskuratzeko aukerari dagokionez, pertsona gazteen enpleguen ezegonkortasuna nabarmentzen da. Enpleguen behin-behinekotasuna, ezegonkortasuna edo soldata-baldintza gogorak dira nagusi. Horri guztiari hein handian gazteei eragiten dien langabezia-tasa gehitu behar zaio, eta, beraz, esan daiteke une honetan enplegua ez dela emantzipaziorako giltza. Soldata baxuak, kontratuen behin-behinekotasuna edo lanaldi partzialak edo ordukakoak ez dira inola ere etxebizitza baten alokairu bati edo hipotekari aurre egiteko baldintza egokienak.

Enpleguaren esparruan, pertsona gazteen artean lehenengo lan-esperientzia sustatzea faktore garrantzitsua da, enplegu berri bat lortzeko aukera eman diezaien edo esperentziarik ez izateagatik bazter uzten dituzten prestakuntza-baliabideetan parte hartu ahal izan dezaten. Alde horretatik, udalaren kontratazioaz gain (eskualdeko enplegu-planak bete behar dituzte), enpresei babesa eskaini behar zaie, gazteak baldintza duin eta bidezkoetan kontrata ditzaten, bai eta prestakuntza txikiagoko taldeei ere. Bestalde, prestakuntza hori handitzen lagundu behar zaie, lan-mundura hurbilduko dituzten praktikaldiak eginez, gazteen enplegarritasun-baldintzak hobetzeko eta kalitatezko enplegu bat eskuratzeko aukerak areagotzeko.

Halaber, egiaztatu da kasu askotan, aholkularitza edo orientazio egokia egiteko nahikoa informazio eta baliabide egon arren, gazteek ez dutela horien berri izaten; horregatik, eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazioa gazteen artean zabaltzea eta zabalkunde hori hobetzea da Gazte Plan honen funtsezko helburuetako bat. Ildo berean, hezkuntzaren arloko eragileekin, bitartekariekin eta gazteekin lan egin behar da, ematen den informazioa haien kanaletara eta hizkuntzetara egokitzeke.

Etxebizitzaren arloan, oso garrantzitsutzat jotzen da emantzipaziorako lehenengo esperientzia bat sustatzea; esperientzia hori alokairuaren bidez egingo litzateke, eta pertsona gazteen diru-sarreraren errealitatera egokitu beharko litzateke. Alde horretatik, hainbat ekintza planteatzen dira, Eusko Jaurlaritzaren edo beste erakunde publiko batzuen eskutik, lehenengo esperientzia horiek bultzatzeko; iraupen jakin bat izango luke esperientziak, eta gazteei etxebizitza-emantzipaziorako lehenengo pauso hori ematen lagunduko lieke.

Bestalde, etxebizitza eskuratzeko arloarekin lotuta baita ere, beharrezkoa da gaur egun gure inguruan etxebizitza eskuratzeko sortu diren modu berriak ikertzea; izan ere, irtenbide tradizionalak baino bideragarriagoak izan daitezke askotan gazteentzat. Hala ere, udalak gai honetan dituen eskumenez kontziente izan behar dugu, etxebizitza-legea ere badela kontuan izan behar dugu, eta, horrez gain, gure udalerrian etxebizitzaren arloan lan egiten duten eragileak ere inplikatu behar dira.

## **HELBURUAK**

Testuinguru horretan, Gazte Plan honen bidez urte hauetan guztietan honako helburu hauek landu nahi dira emantzipazioaren eremuan:

- ➊ **Gazteen kalitatezko enplegua eta eskubideen eskuragarritasuna sustatzea.** Lan-munduan sartzea eta lehenengo lan-esperientzia duinak bultzatzea.
- ➋ Desabantaila-egoeran dauden gazteen laneratzea **erraztea**.
- ➌ Pertsona gazteen **ekintzailtza-prozesuak erraztea**, maila administratiboan eta ekonomikoan.
- ➍ **Pertsona gazteak gaitzea lan-merkatuan txerta daitezen**, haien enplegarritasun-baldintzak hobetuz.
- ➎ Pertsona gazteek **informazio eguneratua eta baliagarria** eskuratzeko aukera izatea, beren emantzipazio-prozesuak babestu eta hobe ditzaketen baliabideen nahiz kasu bakoitzean gertatzen diren arazoen berri izan dezaten.
- ➏ Pertsona gazteek beren emantzipazio-prozesuetan etxebizitza aldatzeko dituzten **aukera guztiei buruzko informazioa izatea**.
- ➐ **Etxebizitza-emantzipaziorako** lehenengo esperientziak bultzatzea

## **UDALAREN JARDUKETAK**

- Funtsean, enplegua sustatzeko eta enplegurako prestakuntzako eta ekintzailtzako ekintzak eta programak Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak antolatzen ditu, baina informaziorako edota sentiberatzeko berariazko alderdietan Gazteria Zerbitzuak ere esku hartzen du. Gainera, beste sail batzuek, hala nola Gizarte Politiken Sailak, zenbait esku-hartze berezi egiten dituzte arlo honetan.
- Sailen arteko koordinazioan ere elkarlanean egin da aurrera, eta, hala, Gazteria Zerbitzuaren eta pertsona gazteen ikuspegia gero eta gehiago hartzen da kontuan enplegu-politikak aurrera eramaterakoan, bereziki. Alderdi hori sendotzen jarraituko dugu aurrerantzean ere.
- **Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak** ahalegin berezia egiten du laneko orientazioaren, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta lan-munduan txertatzeko eremuetan, eskualdeko enplegu-planen barnean.
- Orientazioari dagokionez, honako programa hauek azpimarratu behar dira: GPS. Halaber, enplegua bilatzeko prozesuan laguntzeko eta aholkatzeko banakako nahiz taldeko orientazioko programa; programa horrek alderdi garrantzitsuak hartzen ditu kontuan, hala nola curriculum egitea edo lan-elkarrizketa prestatzea.

- Erabilera libreko baliabide gisa, udalaren enplegu-zentroa ere hortxe dago, eta enplegua bilatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzen ditu.
- Lehenago ere esan dugunez, Eskualdeko Enplegu Plana ere gauzatu da, eta gazte langabeen kolektiboari arreta berezia eskaini zaio.
- Enplegurako prestakuntzari dagokionez, udalaren prestakuntza-ikastaroetan gazteen presentzia egiaztatu da, eta aurreko gazte-planaren barnean abian jarritako ikastaro espezifiko bat finkatu da, kualifikazio txikiko gazteei zuzendutakoa, hain zuzen ere: "Instalazio elektrikoetako laguntzailea". Halaber, gazteei zuzendutako prestakuntza-programa espezifikoak gauzatu dira, udaletik kanpoko beste eragile batzuekin elkarlanean, hala nola Telefónica Fundazioarekin elkarlanean.
- Ekintzaitzaren eremuan, laguntzez gain, ekintzaitzarako beka, aholkularitza, enpresa-proiektuak lantzeko laguntzak edo enpresa-mintegiak eskaintzen dira, eta gazteek horiek guztiek baliatzeko aukera izango dute. Bestalde, sormena lantzeko jarduerak, talde-jarduerak, coworkingeko eremuak edo motibatuzko jarduerak eskaintzen dira. Horiez gain, ikastetxeetan ere zeregin berezia garatuko da, pertsona gazteen artean ekintzaitzaren espiritua eta kultura sustatzeko.
- Modu berean, ekintzaitzaren interesa duten pertsona gazteei zuzendutako prestakuntza-jarduerak egingo dira, hala nola: salmenten kudeaketaren esparruko prestakuntza, marketina, finantzak, enpresa-antolamenduko ereduak, enpresen arteko dinamikak edo "PIPAE" programa, ekintzaileei laguntzeko plan integral pertsonalizatua.
- **Gazteria Zerbitzuaren** aldetik, informazioaren eta orientazioaren esparrua lantzen da bereziki, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoaren bidez. Zehazki, enpleguaren arloan:
  - Gazteriaren webgunearen barnean, enplegu-atarien sarera lotutako informazio eguneratua eskaintzen da.
  - Enplegu-eskaintzei buruzko informazioa biltzen eta hedatzen da: praktikaldiak, ikerketa-bekak eta enplegua lortzeko beste bide batzuk, hirian, nazio-mailan nahiz nazioarte-mailan.
  - Lineako iragarki-taularen bidez, enplegua eskaintzen dutenen eta lana bilatzen duten gazteen arteko topagune bat eskaintzen da, behin-behineko lana lortzeko beste aukera batzuekin batera.
  - Aholkularitza eskaintzen zaie beren egoera pertsonalera egokitzen diren aukerak ezagutu nahi dituzten gazteei (enplegua, prestakuntza, beka, boluntariora...).
  - Gazteen lan egiteko aukerak hobetzeko bere hizkuntza trebetasunen bitartez, bi ekintza garatzen dira:
    - Hizkuntza kluba, hizkuntza erraztasuna hobetzeko lekua.
    - UPV/EHUko Letren Fakultateko ikasleekin egiten diren prestakuntza praktikak, enpresetan praktika boluntarioen modalitatean.

- Gazteria Zerbitzuak, bestalde, aktiboki lan egiten du Gizarte Klausulen Sailen arteko Batzordean, udal-kontratuak lantzeko eta esleitzeko garaian pertsona gazteen kolektiboa kontuan har dezaten.
- **Gizarte Politiken Sailaren** kasuan, gazteak laneratzeko eta gizarteratzeko Gizarteratu programa aipatu behar da, bai eta desabantaila-egoeran egoteko arriskua duten pertsona gazteekin bereziki egiten den lana ere.
- Baita **Valeo** eta **Gerokoa** programetan ere emantzipazioen prozesuak errazten zaizkie, gizarte babeseko programetan egon diren gazteei, gehien bat etxebizitzako edo familietako harrerazko programetan.
- Etxebizitzaren arloan, udala **21 Zabalgunea** sozietatetik eta **Hirigintza Saitetik** egiten ari den lana azpimarratu behar da, aurreko Gazte Planean gazteei zuzendutako alokairuko etheen arloan abiarazitako proiektuaren barnean nahiz Hiri Antolamenduko Plan Orokorra gauzatzeko prozesuan gazteen ikuspegia txertatuz. Bestalde, 21 Zabalgunea sozietateak etxebizitza publikoei eta ordezkoko bizitokia emateko prozesuei buruzko zalantzak argitzen jarraitzen du.
- Etxebizitzari dagokionez, **Gazteria Zerbitzuko Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan** iragarki-taula fisikoak eta Internetekoak eskuragarri jarraitzen dute, alokairu-etxeei buruzko eskariei eta eskaintzari dagokienez; webgunean, bestalde, etxea partekatu nahi duten pertsona gazteen atal bat ere badago. Azkenik, gazteriaren webgunean, etxebizitza publikoa eskuratzeko gida bat ere jaso da, eta errealitatea aldatzen doan heinean informazio hori ere eguneratu egingo da.

## ERRONKA

Pertsona gazteen emantzipaziorako baldintza egokiak sortzen dituen hiria (enplegua, etxebizitza eta informazioa), genero-dimentsioak kontuan hartuta, betiere.

## LAN-MUNDURATZEA

### HELBURUAK

### EKINTZAK

**1** Gazteen kalitatezko enplegua eta eskubideen eskuragarritasuna sustatzea. Lan-munduan sartzea eta lehenengo lan-esperientzia duinak bultzatzea.

**L.1-1** PERTSONA GAZTEAK BALDINTZA DUINETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZAK, UDALERRIKO ENPRESEI ZUZENDUTAKOAK

**L.1-2** PERTSONA GAZTEEN LAN-BALDINTZEN INGURUAN SENTIBERATZEA ENPRESABURUAK

**L.1-3** JARDUNBIDE EGOKIAK ENPLEGUAN ETA PERTSONA GAZTEEKIKO

**L.1-4** GAZTE KUALIFIKATUEI ZUZENDUTAKO LAN-ESPERIENTZIA

**2** Desabantaila-egoeran dauden gazteen laneratzea erraztea.

**L.1-5** ENPLEGURAKO KUALIFIKAZIORIK GABEKO ETA, LEHENTASUNEZ, DBH-KO TITULURIK GABEKO PERTSONA GAZTEEN ERREALITATEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA

**L.1-6** GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUA DUTEN GAZTEEI ZUZENDUTAKO ENPLEGU, PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZARAKO IBILBIDEAK

**L.1-7** ENPLEGUA BILATZEKO PRESTAKUNTZA IKT-EN BIDEZ, DESABANTAILA-EGOERAN DAUDEN GAZTEEI ZUZENDUTA

## **EKINTZAILETZA**

### **HELBURUAK**

- 3** Pertsona gazteen ekintzailletza-prozesuak erraztea, maila administratiboan eta ekonomikoan.

### **EKINTZAK**

- L.1-8** UDALAREN ETA ELKARGI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA
- L.1-9** EKINTZAILETZARAKO BALIABIDEEN BERARIAZKO HEDAPENA, GAZTEEI ZUZENDUTA

## **PRESTAKUNTZA**

### **HELBURUAK**

- 4** Pertsona gazteak gaitzea, lan-merkatuan txerta daitezen, haien enplegagarritasun-baldintzak hobetuz.

### **EKINTZAK**

- L.1-10** ENPLEGURAKO ETA PRESTAKUNTZARAKO BALIABIDEEN MAPA, UDALERRIKO ENPLEGUAREKIN LOTUTA

## **INFORMAZIOA**

### **HELBURUAK**

- 5** Pertsona gazteek informazio eguneratua eta baliagarria eskuratzeko aukera izatea, beren emantzipazio-prozesuak babestu eta hobe ditzaketen baliabideen nahiz kasu bakoitzean gertatzen diren arazoek berri izan dezaten.

### **EKINTZAK**

- L.1-11** IRTEERARI ETA ITZULERARI BURUZKO INFORMAZIOA
- L.1-12** PROIEKTATU ZURE ETORKIZUNA



## ETXEBIZITZA

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>6</b> Pertsona gazteek beren emantzipazio-prozesuetan etxebizitza aldatzeko dituzten aukera guztiei buruzko informazioa izatea.</p>	<p>L.1-13 GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZEI BURUZKO AHOLKULARITZA</p> <hr/> <p>L.1-14 GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZEN UDAL-KOORDINAKUNDEA</p>
<p><b>7</b> Etxebizitza-emantzipaziorako lehenengo esperientziak bultzatzea.</p>	<p>L.1-15 GAZTEENTZAKO ALOKAIKURUKO ETXEBIZITZEN PROGRAMA</p> <hr/> <p>L.1-16 PARTEKATU ZURE EMANTZIPAZIOA</p>

**LI.1 EKINTZA**

**Pertsona gazteak baldintza duinetan kontratatzeko laguntzak, udalerriko enpresei zuzendutakoak**

Gazteen kolektiboa kontuan izango da eta lehentasuna emango zaio argitaratzen diren deialdietan, udalaren kontratazioen laguntza-lerroaren barnean.

Enpresei zuzendutako laguntza ekonomikoak, pertsona gazteak baldintza duinetan kontrata ditzaten. Horrez gain, laguntzak jaso dituzten enpresetan, lanean ari diren pertsona gazteen laneko jarraitutasunaren eta baldintzen jarraipena egingo da.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

**LI.2 EKINTZA**

**Pertsona gazteen lan-baldintzen inguruan sentiberatzea enpresaburuak**

Enpresei zuzendutako kanpaina da; pertsona gazteen lan-baldintzen inguruan sentiberatzeaz gain, gazteak baldintza duinetan kontratatzeko dauden laguntzen berri ematen zaie, ezegonkortasuna saihesteko helburuarekin.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua

**Erantzunkideak:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

2018
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA
12.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA
AURREKONTUA GUZTIRA
12.000 €



Aurkezten diren eskaeren eta kontrataziora zuzendutako kopuruen araberakoa izango da aurrekontua.

**LI.3 EKINTZA**

**Jardunbide egokiak enpleguan eta pertsona gazteekiko**

Udalerriko enpresei zuzendutako aitortza, gazteak kalitatezko baldintzetan kontratatzeko duten konpromisoa balioesteko. Pertsona gazteen enplegua eta iraunkortasuna gainerako langileek dituzten baldintza beretan sustatzen duten enpresei zuzenduko zaie aitortza.

Bi urtean behin egingo da, gazte-politiken gaietako jardunbide egokiaren proposamenarekin lotuta.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua

**Erantzunkideak:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

2017		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
2.000 €		2.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
2.000 €		2.000 €

**LI.4 EKINTZA**

**Gazte kualifikatuei zuzendutako lan-esperientzia**

Eskualdeko Enplegu Planarekin lankidetzan eta Lanbideren eskutik, urtero langile teknikoek hiru lanpostu sustatuko dira Gazteria Sailean, gazte kualifikatuen lan-esperientzia bultzatzeko.

Gazteen lana baliatuko da Behatokiarekin lotutako hainbat zeregin egiteko edo gazteria-politikekin lotutako ekintzak planifikatzeko eta gauzatzeko.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
37.500 €	37.500 €	37.500 €
AURREKONTUA GUZTIRA		
37.500 €	37.500 €	37.500 €

**LI.5 EKINTZA**

**Enplegurako kualifikaziorik gabeko eta, lehentasunez, DBH-ko titulurik gabeko pertsona gazteen errealitatearen azterketa diagnostikoa**

Hezkuntza arautua prestakuntza profesionala lortu gabe uzten duten pertsona gazteen azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa: kopurua eta ezaugarri demografikoak, ikasketak uzteko arrazoiak, enpleguari eta prestakuntzari buruzko itzaropenak...

Eskualdeko Enplegu Planari lotutako programa da, eta Lanbideren laguntza du.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila  
**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

 <b>2017</b>		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
12.500 €		
AURREKONTUA GUZTIRA		
12.500 €		

**LI.6 EKINTZA**

**Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten gazteei zuzendutako enplegu, prestakuntza eta laguntzarako ibilbideak**

Enplegurako kualifikazio-ekintzak, orientazioa eta lan-munduan txertatzeko laguntza bateratuko dituzten programak, kualifikatu gabeko pertsona gazteei zuzendutakoak. Halaber, gazteek enpresetan duten lehenengo lan-esperientzia sustatuko dute programa horiek.

Funtsean, 16 urtetik 23 urtera arteko pertsonak.

Hezkuntza-sistematik kualifikazio profesionalik gabe irteten diren hiriko gazte guztiei laguntzeko eta lan-munduan txertatzeko baliabideak eskainiko zaizkie.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila  
**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

 <b>2017</b>	 <b>2018</b>	 <b>2019</b>
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
25.000 €	25.000 €	25.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
25.000 €	25.000 €	25.000 €

**LI.7 EKINTZA**

**Enplegua bilatzeko prestakuntza IKT-en bidez, desabantaila-egoeran dauden gazteei zuzenduta**

Horretarako, udalak eskuragarri dituen nahiz gai hau lantzen duten tokiko erakundeek dituzten baliabideak erabiltzea aurreikusi da, lankidetzaren bidez baliabide horiek hedatuz eta sendotuz.

Bereziki hartuko da kontuan Gasteizko enplegu-zentroa, CETICen kokatuta dagoena.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila  
**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA	2.000 €	2.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA	2.000 €	2.000 €

**LI.8 EKINTZA**

**Udalaren eta Elkargi elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena**

Ekintza honek Gasteizko Udalak eta Elkargi Elkarren Bermerako Sozietateak hitzarmen bat sinatzeko bideragarritasuna aztertuko du; hitzarmen horren bidez, abalen programa bat sortuko dute, enpresa-proiektuak finantzatzeko aukera errazteko eta pertsona gazteek beren negozio-ideiak garatzeko aukera izan dezaten.

Hitzarmen horren bideragarritasuna aztertu ondoren, eta posible bada, abian jarriko da, gazte ekintzaileei bermea eskaintzeko.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila  
**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA	8.000 €	8.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA	8.000 €	8.000 €	

**LI.9 EKINTZA**

**Ekintzailtzarako baliabideen berariazko hedapena, gazteei zuzenduta**

Gasteizko Udalak hainbat baliabide ditu ekintzailtza sustatzeko, baina pertsona gazteek ez dituzte baliabide horien guztien berri izaten.

Beraz, baliabide horien zabalkunde ahalik eta handiena egin nahi da, horretarako hizkuntza eta bide egokiak erabiliz, hala, gazteek aukera horiei guztiei buruzko informazioa jaso dezaten.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua

**Erantzunkideak:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	5.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
	5.000 €	

**LI.10 EKINTZA**

**Enplegurako eta prestakuntzarako baliabideen mapa, udalerriko enpleguarekin lotuta**

Enplegurako baliabideen udalerriko mapa eguneratuta izatea da helburua. Enplegurako baliabideei dagokiena nahiz enplegurako edo autoenplegurako prestakuntzarako baliabideei dagokiena.

Halaber, mapa gazteen artean eta gazte-eragileen artean hedatzeko ahalegina egingo da.

**Arduraduna:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

**Erantzunkideak:** Gazteria Zerbitzua

		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
		
AURREKONTUA GUZTIRA		
		



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

**LI.II EKINTZA**

**Irteerari eta itzulerari buruzko informazioa**

Alde batetik, aholkularitza eta informazioa eskaini nahi zaie lan bila atzerrira joan nahi duten gazteei nahiz atzerritik itzultzen direnei, batez ere baldintzei, lan-egoerari, itzultzean gal ditzaketen eskubideei eta abarrei buruz nahiz beste alderdi batzuei buruz: kotizazioak, etxebizitzaren zerrendak, lan-esperientzia... Zerbitzu bat sortuko da udalaren webgunean, beharrezko informazio guztia jasoko du eta lotura zuzena izango du Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua  
**Erantzunkideak:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

	2017	2018	2019
<b>GAZTE PLANAREN AURREKONTUA</b>			
6.000 €			
<b>BESTE SAILEN AURREKONTUA</b>			
<b>AURREKONTUA GUZTIRA</b>			
6.000 €			

**LI.I2 EKINTZA**

**Proiektatu zure etorkizuna**

Hainbat ekitaldi egingo dira urtean zehar (hitzaldiak, debateak, bilerak erreferenteekin...), nagusiki Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan edo gure aliatuen lokaletan, pertsona gazteen emantzipazio-prozesuarekin (enplegua, etxebizitza, Europako mugikortasuna, informazioa eskuratzeko bideak...) eta Gazte Planeko parte-hartzearen eremuarekin lotuta.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua  
**Erantzunkideak:** Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila

	2017	2018	2019
<b>GAZTE PLANAREN AURREKONTUA</b>			
2.500 €	5.000 €	5.000 €	
<b>BESTE SAILEN AURREKONTUA</b>			
<b>AURREKONTUA GUZTIRA</b>			
2.500 €	5.000 €	5.000 €	



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

**LI.13 EKINTZA**

**Gazteentzako etxebizitzei buruzko aholkularitza**

Gazteei zuzendutako aholkularitza juridikoko zerbitzua sustatzea eta hedatzea, emantzipazioarekin lotutako gaietan bereziki, lan-arloan egiten den bezala.

Oro har, pertsona gazteek ez dute informazio asko izaten etxebizitzei buruz, eta, horregatik, garrantzitsua da aholkularitza eskatzeko leku fisiko bat badutela jakinaraztea. Horrez gain, zerbitzu horren berri eman behar da gazteak gehien ibiltzen diren inguruetan, adibidez, unibertsitatean.

Modu berean, etxebizitzaren arloan gazteei aholkularitza emateko nahiz bitartekotza-lanak egiteko hirian dauden gainerako balia bide publikoen berri emango da.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua  
**Erantzunkideak:** Hirigintza Saila

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

**LI.14 EKINTZA**

**Gazteentzako etxebizitzaren udal-koordinakundea**

Gasteizko Udalak administrazio guztien arteko koordinazioa sustatuko du, biztanle gazteek etxebizitzaren arloan dituzten beharrei erantzuteko.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua  
**Erantzunkideak:** Hirigintza Saila

	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		



**LI.15 EKINTZA**

**Gazteentzako alokairuko etxebizitzaren programa**

Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, etxebizitzaren arloko lehenengo esperientziak sustatu nahi ditugu gure hiriko gazteen artean, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Gazteen beharrak kontuan izango dituen etxebizitza-programa bat ezarriko da (lan-ezgonkortasuna, soldata, elkarrekin bizitzeko hainbat modu...).

Horrez gain, adinagatik programa horietan jarraitu ezin duten pertsonen jarraipena egitea ere beharrezkoa izango litzateke.

Alokairuak merkatukoak baino prezio merkeagoan jarriko dira, denbora-epe jakin baterako eta gizarte-ordain baten truke.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua

**Erantzunkideak:** Hirigintza Saila

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
12.000 €	12.000 €	12.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
12.000 €	12.000 €	12.000 €

**LI.16 EKINTZA**

**Partekatu zure emantzipazioa**

Une honetan hirian dauden aukerak ikertuko dira, eta, ondoren, beharrezkotzat jotzen bada, etxebizitza partekatua sustatzeko programa bat bultzatuko du udalak.

Hau da, pertsona gazteak lagunarte beharra duten pertsonekin harremanetan jarriko dira, etxea elkarrekin partekatzeko, etxeko gastuak erdibana ordaintzeko... Gaur egun, adineko pertsona asko bakarrik bizi dira Gasteizen, eta etxea gazte batekin partekatzea oso aberasgarria izan daiteke bientzat.

**Arduraduna:** Gazteria Zerbitzua

**Erantzunkideak:** Hirigintza Saila eta Gizarte Politiken Saila

		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
		
AURREKONTUA GUZTIRA		
		